

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI). 2018KO URRIA

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak %3,3 gehitu dira 2018ko urrian

Igoera bereziki gertatu da atzeritik etorritakoen artean, %7,6 gehitu baitira

2018ko urrian 281.042 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 9.036 sarrera gehiago, %3,3ko gehikuntza, Eustaten datuen arabera. Bidaiari-sarrerak %5,3 gehitu dira Bizkaian eta %3,2 Gipuzkoan, baina %3,0 jaitsi dira Araban.

Bestalde, gaualdiak Euskal AEko hotel-establezimenduetan 2018ko urrian 564.848 izan dira; aurreko urteko urrian baino 42.609, %8,2, gehiago. Bizkaian %8,4ko igoera gertatu da, Gipuzkoan %8,0koa eta Araban %7,6koa.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Urria

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)				Gelatik Errentagarritasuna	
	2018/10	m/m-12 (%)	2018/10	m/m-12 (%)	2018/10	2017/10	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)	RevPar (eurotan)
							2018/10	p.p.*	2018/10	p.p.*		
EUSKAL AE	564.848	8,2	281.042	3,3	2,01	1,92	60,6	2,7	74,2	3,9	90,3	66,9
Estatukoak	315.036	4,4	159.288	0,3	1,98	1,90	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrek	249.812	13,4	121.754	7,6	2,05	1,95	-	-	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	73.932	7,6	37.916	-3,0	1,95	1,76	55,3	3,8	67,9	5,5	73,4	49,8
Estatukoak	53.008	11,3	26.705	0,2	1,98	1,79	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrek	20.924	-0,7	11.211	-9,9	1,87	1,69	-	-	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	54.623	14,5	26.548	0,5	2,06	1,81	58,0	6,3	73,7	8,1	62,4	46,0
BIZKAIA	270.965	8,4	136.173	5,3	1,99	1,93	62,6	3,6	77,6	4,0	87,7	68,1
Estatukoak	149.385	3,8	77.315	1,2	1,93	1,88	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrek	121.580	14,7	58.858	11,4	2,07	2,01	-	-	-	-	-	-
Bilbao	172.205	4,8	85.946	2,7	2,00	1,96	69,8	3,0	85,8	3,9	98,9	84,9
GIPUZKOA	219.951	8,0	106.953	3,2	2,06	1,96	60,2	1,2	72,3	3,0	99,3	71,8
Estatukoak	112.643	2,1	55.268	-0,9	2,04	1,98	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrek	107.308	15,1	51.685	7,9	2,08	1,95	-	-	-	-	-	-
Donostia	132.795	8,3	65.173	4,1	2,04	1,96	68,2	-1,0	80,8	-0,3	125,5	101,5

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta


Estatutiko bidaiari-sarrerak %0,3 hazi dira Euskal AEn aurreko urteko urriaren aldean, eta atzeritiko sarrerak %7,6 gehitu dira. Arabaren kasuan, Estatuko bidaiariek %0,2ko eboluzio positiboa eduki dute, eta %9,9ko jaitsiera atzeritik datozenen kasuan. Bizkaian Estatuko bidaiariak %1,2 gehitu dira eta atzeritarrek %11,4. Gipuzkoan Estatuko sarrerak %0,9 txikitu dira; atzeritarrenak, aldiz, %7,9 igo dira.

Batez besteko egonaldia urrian 2,01 egunekoa izan da, 2017ko urrian 1,92 zelarik. Araban 2017ko urriko 1,76 egunetik aurtengo urriko 1,95era luzatu da; Bizkaian 1,93tik 1,99ra luzatu da; Gipuzkoan 1,96tik 2,06ra luzatu da aurtengo urrian 2017koaren aldean.

Plazakako betetze-maila ehuneko 2,7 puntuz handitu da Euskal AE osoan, 2017ko urriko %57,9tik aurtengo urriko %60,6ra. Araban ehuneko 3,8 puntuko igoera gertatu da, eta betetze-maila %55,3koa izan da aurtengo urrian. Bizkaian ehuneko 3,6 puntuz gehitu da, eta %62,6koa izan da

betetze-maila. Gipuzkoan hobetu da betetze-maila ehuneko 1,2 puntuz, plazakako %60,2ko betetze-maila 2018ko urrian.

Euskal AEko zerbitzuen gaineko koiuntura-indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Uneko prezioak



Gelakako betetze-maila ehuneko 3,9 puntuz gehitu da Euskal AE osoan, %74,2ra iritsiz. Araban ehuneko 5,5 puntuz gehitu da, %67,9ra; Bizkaian ehuneko 4,0 puntuz gehitu da, %77,6ra; Gipuzkoan ehuneko 3,0 puntuz hobetu da, %72,3ra.

Hotel-okupaziorik handienak plazaka aurtengo urrian izan dira Bilbon (%69,8) eta ondoren Donostian (%68,2) eta Bilbo Handian (%62,1).

Asteko eguna aintzat, 2018ko urrian okupaziorik handiena Euskal AE osoan aste-bukaeretan gertatu da, %73,6; lanegunetakoa, %56,0.

Azkenik, **sektorearen errentagarritasun adierazleez**, eguneko batez besteko tarifa (ADR) Euskal AEko hoteletan 90,3 euro izan dira 2018ko urrian, aurreko urtean baino %6,5 gehiago. Batez besteko tarifa 73,4 eurokoa izan da Araban, non %3,4 jaitsi den; 87,7 eurokoa Bizkaian, %12,6ko igoerarekin; eta 99,3 eurokoa Gipuzkoan, %2,7ko igoerarekin.

Gela eskuragarriko diru-sarrerak (RevPar), zeinak hotel-establezimenduetako okupazioaren arabera diren, 66,9 eurokoa izan dira Euskal AEn 2018ko urrian, 2017koan baino %12,4 gehiago. Araban 49,8 eurokoa izan da, Bizkaian 68,1 eurokoa, Gipuzkoan 71,8 eurokoa.

Euskal AEn gelakako betetze-maila %86,1ekoa izan zen Pilarraren zubian

Euskal AE osoan 2018ko Pilarraren zubian (urriaren 11tik 13ra, hiru egun) 34.258 sarrera eta 73.146 gaualdi izan ziren; plazakako betetze-maila %79,5, gelakakoa %86,1. Araban 4.980 sarrera eta 10.625 gaualdi izan ziren aipatu hiru egunotan; plazakako betetze-maila %79,2 eta gelakakoa %84,1. Bizkaian 16.266 sarrera eta 33.653 gaualdi; plazakako betetze-maila %78,7 eta

gelakakoa %85,6. Gipuzkoan 13.012 sarrera eta 28.868 gaualdi; plazakako betetze-maila %80,6 eta gelakakoa %87,5.

Landa-ostatueta sarrerak %7,2 gehitu dira eta gaualdiak %1,9 2018ko urrian

Euskal AEko landa-ostatueta 14.430 bidaiari-sarrera erregistratu dira urrian, %7,2 gehiago aurreko urteko hil beraren aldean. Bizkaian %7,0ko gehikuntza gertatu da sarreretan eta Gipuzkoan %13,1ekoa, baina Araban jaitsi dira %4,8 sarrerak. Izan dira 2.662 atzeritar-sarrera, zeina den %0,2ko hazkundera aurreko urtekoen aldean, eta sarrera guztien %18,4 da hori. Bestalde, Estatutik etorririko bidaiarien sarrerak %9,0 gehitu dira.

Euskal AEko landa-establezimenduetan urrian 33.244 gaualdi izan dira, aurreko urteko hil beraren aldean %1,9ko gehikuntza dena. Lurraldeez bezainbatean, Gipuzkoan igo dira %13,7, Bizkaian jaitsi egin dira %1,1 eta Araban ere jaitsi dira, %19,0.

Plazakako betetze-maila, %25,1, ehuneko 0,1 puntu gutxiago 2017ko urrian baino. Araban ehuneko 4,7 puntu gutxiago, betetze-maila %20,0; Bizkaian betetze-maila %24,4, ehuneko 1,4 puntu gutxiago 2017ko urriaren aldean; Gipuzkoan ehuneko 3,3 puntu gehiago, eta %28,0 betetze-maila.

Azkenik, bidaiariko batez besteko egonaldia laburtu egin da 2017ko urriaren aldean: duela urtebete 2,42 egun; aurtengoan 2,30.

2. taula.- Euskal AEko landetxeetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2018ko Urria

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2018/10	m/m-12 (%)	2018/10	m/m-12 (%)	2018/10	2017/10	2018/10	p.p.*
EUSKAL AE	33.244	1,9	14.430	7,2	2,30	2,42	25,1	0,1
Araba/Álava	5.815	-19,0	2.787	-4,8	2,09	2,45	20,0	-4,7
Bizkaia	10.112	-1,1	4.657	7,0	2,17	2,35	24,4	-1,4
Gipuzkoa	17.317	13,7	6.986	13,1	2,48	2,46	28,0	3,3

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62